



## Udalak

## AMURRIO

414

**Behin betiko onartzea udalaren 4. zerga ordenantzaren, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duenaren, aldaketa.**

Udalbatzak, 2013ko abenduaren 5eko bilkuran, behin-behineko onarpena ematea erabaki zuen udalaren 4. zerga ordenantzaren, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duenaren, aldaketari (espediente: 13381C2164), eta ALHAOn (145. zk., 2013ko abenduaren 18koa) eman zen argitara. Erabaki horren aurkako erreklamazioak aurkezteko epean inolako erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, erabaki hori behin betiko bihurtzen da, halaxe agintzen baitu martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak, toki ogasunak arautzen dituen legearen testu bateratua onartzen duenak, 17.3 artikuluan. Horrela, bada, argitaratu egiten da, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 70.2 artikuluan eta 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak, toki ogasunak arautzen dituen legearen testu bateratua onartzen duenak, 17.4 artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako. Zerga ordenantza honen testu osoa argitaratzen da hitzez hitz:

**UDALAREN 4. ZERGA ORDENANTZA, ERAIKUNTZA, INSTALAZIO  
ETA OBREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA**

## I. XEDAPEN OROKORRAK

**1. artikulua.**

Amurrioko Udalak eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ezarri eta eskatuko du ordenantza honen arabera, uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko toki ogasunenak, 19.2.a) artikuluan eta uztailaren 19ko 45/1989 Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorritz.

Zerga hau zuzeneko tributua da.

**2. artikulua.**

Ordenantza hau Amurrioko udalerrri osoan aplikatuko da.

## II. ZERGA GAIA

**3. artikulua.**

Zerga gaia da edozein eraikuntza, instalazio edo obra egitea, horretarako beharrezkoa bada obra edo hirigintza baimena, baimen hori lortu edo ez, edo erantzukizun aitortpena, edo alde zuzen jakinaraztea, betiere baimena ematea edo kontrol jarduerak egitea Amurrioko Udalarri badagokio.

Adibide gisa, hona hemen zerga gai diren zenbait egitate:

- 1.- Oin berriko eraikin eta instalazio mota guztiak eraikitzeak obrak.
- 2.- Lehendik dauden mota guztietako eraikinak edo instalazioak handitzeko obrak.
- 3.- Lehendik dagoen edozein eraikin eta instalazioaren egiturari eragiten dioten eraberritze edo aldaketa obrak.
- 4.- Lehendik dauden mota guztietako eraikinen eta instalazioen kanpoko itxura aldatzeko obrak.
- 5.- Eraikinen barruko taxutzea aldatzeko obrak, beraien erabilera gorabehera.
- 6.- Behin-behinekoak diren obrak.
- 7.- Zerbitzu publikoak instalatzeko obrak.
- 8.- Lur mugimenduak; esaterako, lur erauzketak, indusketak eta lubakiak, baldin eta egintza horiek ez badaude zehaztuta eta progra-

## Municipios

## AMURRIO

414

**Aprobación definitiva de la modificación de la ordenanza fiscal municipal número 4, reguladora del impuesto sobre construcciones, instalaciones y obras.**

Transcurrido el plazo para la presentación de reclamaciones contra el acuerdo adoptado por el Ayuntamiento Pleno en sesión celebrada el día 5 de diciembre de 2013, y publicado en el BOTHA número 145 de 18 de diciembre de 2013, relativo a la aprobación provisional de la modificación de la Ordenanza Fiscal Municipal número 4, reguladora del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras (expediente 13381C2164), sin que se haya formulado reclamación alguna, de conformidad con lo establecido en el artículo 17.3, del Real Decreto Legislativo 2/2004, de 5 de marzo, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley reguladora de las Haciendas Locales, se eleva a definitivo dicho acuerdo, lo que se hace público a los efectos previstos en el artículo 70.2, de la Ley 7/1985, de 2 de abril, y artículo 17.4 de del citado Real Decreto Legislativo 2/2004, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley reguladora de las Haciendas Locales, con la publicación del texto íntegro de la referida Ordenanza fiscal, cuyo contenido literal es el siguiente:

**“ORDENANZA FISCAL MUNICIPAL Nº 4 REGULADORA DEL  
IMPUESTO SOBRE CONSTRUCCIONES, INSTALACIONES Y OBRAS**

## I. DISPOSICIONES GENERALES

**Artículo 1.**

Este Ayuntamiento de Amurrio, de acuerdo con lo previsto en el art. 19.2.a) de la Norma Foral 41/89, de 19 de julio, de las Haciendas Locales del Territorio Histórico de Álava y la Norma Foral 45/89, de 19 de julio, establece y exige el Impuesto de Construcciones, Instalaciones y Obras con arreglo a la presente Ordenanza.

El presente impuesto es un tributo directo.

**Artículo 2.**

La Ordenanza se aplica en todo el término municipal de Amurrio.

## II. HECHO IMPONIBLE

**Artículo 3.**

Constituye el hecho imponible de este impuesto, la realización de cualquier construcción, instalación u obra para la que se exija la obtención de la correspondiente licencia de obras o urbanística, se haya obtenido o no dicha licencia, o para la que se exija presentación de declaración responsable o comunicación previa, siempre que la expedición de la licencia o la actividad de control corresponda al Ayuntamiento de Amurrio.

A título enunciativo, constituyen supuestos de hecho imponible sujetos al impuesto los siguientes:

- 1.- Las obras de construcción de edificaciones e instalaciones de todas clases de nueva planta.
- 2.- Las obras de ampliación de edificios o instalaciones de todas clases existentes.
- 3.- Las de modificación o reforma que afecten a la estructura de los edificios e instalaciones de todas clases existentes.
- 4.- Las de modificación del aspecto exterior de los edificios e instalaciones de todas clases existentes.
- 5.- Las obras que modifiquen la disposición interior de los edificios, cualquiera que sea su uso.
- 6.- Las obras que hayan de realizarse con carácter provisional.
- 7.- Las obras de instalación de servicios públicos.
- 8.- Los movimientos de tierra, tales como desmontes, excavación y terraplenado, salvo que tales actos estén detallados y

matuta baimendu edo onartutako urbanizazio edo eraikuntza proiektu batean egin beharreko obra gisa.

9.- Eraikuntzen eraispena, berehalako aurriaren adierazpena egin zaienetan izan ezik.

10.- Aparkalekuetarako, industria edo merkataritza jardueretarako, jarduera profesionaletarako eta zerbitzu publikoetarako erabiltzen diren lur azpiko instalazioak, edo lurpeari eman nahi zaion beste edozein erabilera.

11.- Bide publikotik ikus daitezkeen propagandako kartelak ipintzeko obrak.

12.- Ahalmen ekonomikoa agerian jartzen duten baliabide ekonomikoen inbertsioa eskatzen duten obra, eraikuntza eta instalazio guztiak, baldin eta obra baimena edo hirigintzako baimena behar badute.

#### 4. artikulua.

1.- Ez daude zergapean udal honen jabariko higiezinetan egiten diren eraikuntzak, obrak eta instalazioak, baldin eta obraren jabea udala bera bada.

2.- Zerga honetatik salbuetsita daude:

a) Zergari lotuta egon arren, eraikuntza, obra edo instalazioaren jabeak estatua, autonomia erkidegoak, lurralde historikoak edo toki erakundeak badira, ez zaie zerga ezarriko baldin eta zuzenean errepideak, trenbideak, aireportuak, obra hidraulikoak, herrietako eta bertako hondakin-uretako saneamenduak eraikitzeke badira, erakunde autonomoek kudeatzen badituzte ere, inbertsio berriko obrak izan zein mantentzekoak izan.

b) Arabako Lurralde Historikoko kontzejuen jabetzako eraikuntzak, instalazioak eta obrak, baldin eta helburua herritarren zerbitzua edo erabilera bada.

c) Uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauaren, ondasun higiezinaren gaineko zergarenaren, 4. artikuluko j) idatz zatian jasotako salbuespena aplikatu ahal zaien ondasunetan egindako eraikuntzak, instalazioak eta obrak.

d) Lehendik dauden eraikin edo eraikuntzetan oztupo arkitektonikoak kentzeko egiten diren obrak edo eraikuntzak.

### III. SUBJEKTU PASIBOAK

#### 5. artikulua.

1. Hauexek dira zerga honen subjektu pasiboak, zergadun gisa: higiezin batean egiten den eraikuntza, instalazio edo obraren jabe diren pertsona fisikoak, pertsona juridikoak eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 35. artikuluko 3. paragrafoan aipatutako erakundeak, higiezinaren jabe izan zein ez.

2. Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako, eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren jabea haren gastuak edo kostuak jasaten dituena da.

#### 6. artikulua.

1. Eraikuntza, instalazioa edo obra subjektu pasibo zergadunak egiten ez badu, haren ordezkotako subjektu pasibotzat joko dira horietarako baimenak eskatu dituztenak edo eraikuntza, instalazio edo obrak egin dituztenak.

2. Ordezko subjektu pasiboak ordaindutako zerga kuota eskatu ahal izango dio zergadunari.

### IV. ZERGA OINARRIA, KUOTA ETA SORTZAPENA

#### 7. artikulua.

1. Zerga oinarria eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren kostu erreala eta benetakoa da.

2. Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, kostu erreala eta benetakoa gauzatze materialaren kostua da.

#### 8. artikulua.

Zerga honen kuota kalkulatzeko, zerga oinarriari karga tasa aplikatu behar zaio.

Karga tasa ehuneko 4,5 izango da.

#### 9. artikulua.

Zergaren sortzapena eraikuntza, instalazioa edo obra hasten denean gertatuko da, nahiz eta obra baimena eskuratu gabe eduki.

programados como obras a ejecutar en un proyecto de urbanización o de edificación aprobado o autorizado.

9.- La demolición de las construcciones, salvo en las declaradas de ruina inminente.

10.- Las instalaciones subterráneas dedicadas a aparcamiento, actividades industriales, mercantiles o profesionales, servicios públicos o cualquier otro uso a que se destine el subsuelo.

11.- La colocación de carteles de propaganda visibles desde la vía pública.

12.- Cualesquiera obras, construcciones o instalaciones que impliquen inversión de recursos económicos demostrativos de una capacidad económica y sujetos a licencia de obras o urbanísticas.

#### Artículo 4.

1.- No estarán sujetos a este impuesto las construcciones, obras o instalaciones ejecutadas sobre inmuebles cuya titularidad dominical corresponda a este Ayuntamiento, siempre que ostente la condición de dueño de la obra.

2.- Estarán exentas de este impuesto:

a) Las realizaciones de cualquier construcción, instalación u obra de las que sean dueños el Estado, las Comunidades Autónomas, los Territorios Históricos o las Entidades Locales, que estando sujetas al mismo, vayan a ser directamente destinadas a carreteras, ferrocarriles, aeropuertos, obras hidráulicas, saneamiento de poblaciones y de sus aguas residuales, aunque su gestión se lleve a cabo por Organismos Autónomos, tanto si se trata de obras de inversión nueva como de conservación.

b) La realización de cualquier construcción, instalación u obra de la que sean dueños los Concejales del Territorio Histórico de Álava cuyo el destino sea el servicio o uso público.

c) La realización de cualquier construcción, instalación u obra efectuada en los bienes a los que resulte de aplicación la exención contenida en la letra j) del artículo 4 de la Norma Foral 42/1989, de 19 de julio, del Impuesto sobre Bienes Inmuebles.

d) Las obras o construcciones que supongan la eliminación de barreras arquitectónicas del edificio o construcciones preexistentes.

### III. SUJETOS PASIVOS

#### Artículo 5.

1. Son sujetos pasivos de este Impuesto, a título de contribuyentes, las personas físicas, personas jurídicas y entidades a que se refiere el apartado 3 del art. 35 de la Norma Foral General Tributaria, que sean dueños de la construcción, instalación u obra, sean o no propietarios del inmueble sobre el que se realice aquélla.

2. A los efectos previstos en el párrafo anterior, tendrá la consideración de dueño de la construcción, instalación u obra quien soporte los gastos o el coste que comporte su realización.

#### Artículo 6.

1. En el supuesto de que la construcción, instalación u obra no sea realizada por el sujeto pasivo contribuyente, tendrán la condición de sujetos pasivos sustitutos del mismo quienes soliciten las correspondientes licencias o realicen las construcciones, instalaciones u obras.

2. El sustituto podrá exigir del contribuyente el importe de la cuota tributaria satisfecha.

### IV. BASE IMPONIBLE, CUOTA Y DEVENGO

#### Artículo 7.

1. La base imponible del impuesto está constituido por el coste real y efectivo de la construcción, instalación u obra.

2. A efectos de lo dispuesto en el número anterior, el coste real y efectivo comprende el costo de ejecución material.

#### Artículo 8.

La cuota de este impuesto será el resultado de aplicar a la base imponible el tipo de gravamen.

El tipo de gravamen será el 4,5 por ciento.

#### Artículo 9.

El impuesto se devengará en el momento de iniciarse la construcción, instalación u obra, aun cuando no se haya obtenido la

Eraikuntza, instalazioa edo obra egiteko baimena ematean likidatuko da zerga.

#### 10. artikulua.

Aginduzko baimena ematen denean edo erantzukizun aitortpena edo alde zuzenaren jakinarazpena aurkezten denean, edota oraindik baimena eskatu, eman edo ukatu ez bada edo aitortpen eta jakinarazpenak aurkeztu ez badira, eraikuntza, instalazioa edo obra egiten hasten bada, behin-behineko likidazioa egingo da kontura, eta zerga oinarria zehaztuko da interesdunek aurkeztutako aurrekontuaren arabera, betiere dagokion elkargoak behar bezala ikus-onetsita badago; bestela, udal teknikariek zehaztuko dute zerga oinarria, gauzatze proiekturako aurreikusitako kostuaren arabera.

#### 11. artikulua.

Behin baimena emanda hasierako proiektua aldatzen bada, beste aurrekontu bat aurkeztu beharko da, behin-behineko beste likidazio bat egitearren, hasierako aurrekontuari gehitu zaion zenbatekoaren arabera. Baimena ukatuz gero, zergaren zenbatekoa itzuliko da.

#### 12. artikulua.

1. Benetan egindako eraikuntza, instalazio edo obrak ikusita eta horien kostu erreala eta benetako kontuan hartuta, Amurrioko Udalak, beharrezkoa bada, behin-behineko zerga oinarria aldatu eta likidazio osagarria egingo du, eta subjektu pasiboari dagokion zenbatekoa eskatuko dio, edo, hala badagokio, itzuli.

2. Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako, obra amaitu edo behin-behineko jaso eta hurrengo hilabetean, horri buruzko eta eraikuntza, instalazio edo obraren kostu errealarari eta benetakoari buruzko adierazpena aurkeztu beharko da, bai eta obraren zuzendari fakultatiboaren ziurtagiria ere.

#### 13. artikulua.

Zergaren likidaziorako, ondorio berak edukiko dituzte administrazio isiltasun positiboaren bidez ematen diren baimenek eta berariaz ematen diren baimenek.

#### 14. artikulua.

Amurrioko Udalak zerga hau autolikidazio bidez ordaintzeko eska dezake, eta hori aginduzko baimena ematean egingo da.

#### 15. artikulua.

Baimen baten titularrak baimendutako obra, eraikuntza edo instalazioa egiteko asmoa bertan behera uzten badu eta hori idatzizko uko egitearen bitartez adierazten badu, Amurrioko Udalak egindako behin-behineko likidazioa itzuli edo guztiz baliogabetuko du, baimena eman zenetik 6 hilabeteko epean.

#### 16. artikulua.

Baimena iraungitakoan, Amurrioko Udalak egindako likidazioa itzuli edo baliogabetuko du, salbu eta titularrak hura berritzeko eskatu eta udalak baimena ematen badiu.

#### 17. artikulua.

Ehuneko 95eko hoberia egongo da zerga kuotan, gizarte inguruabarrak (esaterako, aparteko fenomeno atmosferikoek sortutakoak) edo kultura, historia eta arte inguruabarrak tarteko, udal interes edo erabilera bereziko deklaraturata dauden obrentzat, edo deklarazio hori justifikatzen duen enplegu sustapenekoentzat.

#### V. AZKEN XEDAPENA

Udalaren 4. zerga ordenantza, eraikuntza, instalazio eta obraren gaineko zerga arautzen duena, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta hala egongo da aldatzea edo indargabetzea onartu arte.

Amurrio, 2013ko urtarrilaren 27a.- Alkatea, JOSUNE IRABIEN MARI GORTA.

correspondiente licencia de obras. La liquidación del impuesto se realizará en el momento de concederse la licencia de la construcción, instalación u obra.

#### Artículo 10.

Al momento de concederse la licencia preceptiva o se presente la declaración responsable o la comunicación previa, o cuando no habiéndose solicitado, concedido o denegado aún aquélla o presentado éstas, se inicie la construcción, instalación u obra se practicará una liquidación provisional a cuenta, determinándose la base imponible en función del presupuesto presentado por los interesados, siempre que el mismo hubiera sido visado por el colegio oficial correspondiente; en otro caso, la base imponible será determinada por los técnicos municipales, de acuerdo con el coste estimado del proyecto de ejecución.

#### Artículo 11.

Si concedida la correspondiente licencia se modificara el proyecto inicial, deberá presentarse un nuevo presupuesto a los efectos de practicar una nueva liquidación provisional a tenor del presupuesto modificado en la cuantía que exceda del primitivo. En el caso de denegación de licencia se procederá a devolver el importe del impuesto.

#### Artículo 12.

1. A la vista de las construcciones, instalaciones u obras efectivamente realizadas y del coste real efectivo de las mismas, el Ayuntamiento de Amurrio, modificará, en su caso, la base imponible provisional, practicando la correspondiente liquidación complementaria y exigiendo del sujeto pasivo o reintegrándole, en su caso, la cantidad que corresponda.

2. A efectos de lo dispuesto en el apartado anterior, dentro del mes siguiente a la terminación de la obra o recepción provisional de la misma, se presentará declaración de esta circunstancia y del coste real y efectivo de la construcción, instalación u obra, acompañada de certificación del director facultativo de la obra.

#### Artículo 13.

A efectos de la liquidación del impuesto, las licencias otorgadas por aplicación del silencio administrativo positivo tendrá el mismo efecto que el otorgamiento expreso de licencias.

#### Artículo 14.

El Ayuntamiento de Amurrio podrá exigir el pago de este impuesto en régimen de autoliquidación, que se practicará en el momento de concederse la licencia preceptiva.

#### Artículo 15.

Si el titular de una licencia desistiera de realizar las obras, construcciones o instalaciones autorizadas, mediante renuncia expresa formulada por escrito, en el plazo de 6 meses desde la concesión, el Ayuntamiento de Amurrio procederá al reintegro o anulación total de la liquidación provisional practicada.

#### Artículo 16.

Caducada una licencia el Ayuntamiento de Amurrio procederá al reintegro o anulación de la liquidación practicada, salvo que el titular solicite su renovación y el Ayuntamiento la autorice.

#### Artículo 17.

Se establece una bonificación del 95 por ciento de la cuota del impuesto a favor de las obras de declaradas de especial interés o utilidad municipal por concurrir circunstancias sociales (como los generados por fenómenos atmosféricos extraordinarios), culturales, histórico-artísticas o de fomento del empleo que justifiquen tal declaración.

#### V. DISPOSICIÓN FINAL

La Ordenanza Fiscal Municipal nº 4 reguladora del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras, entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el BOTHA, y permanecerá vigente hasta que se apruebe su modificación o derogación."

En Amurrio, a 27 de enero de 2013.- La alcaldesa, JOSUNE IRABIEN MARI GORTA.